

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

OLABEZARKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Mugaketako administrazio espedientea

Olabezarko Administrazio Batzarrak, 2020ko abenduaren 2ko bilkuran, hau erabaki du:

Lehenengoa. Administrazio espedientea hastea, Olabezarko Garbiras auzoan, Aiarako 4 poligonoko 601 katastro lurzatiaren parean, dagoen Garbiras bide publikoan soberan dauden lursailak mugatzeko.

Bigarrena. Neurtze lanak iragarkia ALHAOn argitaratu eta bi hilabeteren buruan hasiko dira egiten.

Neurketa lan horiek Olabezarko Administrazio Batzarreko teknikariek zuzenduko dituzte, eta batzarburua ere bertan egongo da. Lanak dagokion eguneko goizeko 10:00etan hasiko dira.

Hirugarrena. Erabaki honen berri ematea lursail publikoaren mugakide diren jabeei, eta espedientea jendaurrean jartzea, neurketa lanak hasi baino 60 egun baliodun lehenago argitara emanez ALHAOn eta Olabezarko Kontzejuaren iragarki taulan.

Espedientea jendaurrean dagoen bitartean, interesdunek Aiarako Udalaren bulegoetan izango dute eskuragarri.

Laugarrena. Interesa duen edonori jakinaraztea bere eskubideak frogatu eta aldezteko egokitzat jotzen dituen alegazioak eta agiriak aurkez ditzakeela Aiarako udal bulegoetan, neurketa lanak hasi baino hogeit hamar egun lehenagora arteko epean. Epe hori igaro eta gero, ez da onartuko ez agiririk ez alegaziorik.

Administrazio Batzarrak dagokiona erabakiko du agirien eta gainerako frogen gainean, horiek aurkezteko epea amaitu eta mugaketa hasteko finkatu den egunaren bezpera arte, eta une egokian jakinaraziko zaie interesdunei.

Bosgarrena. Ezarritako egunean, aipatutako tokira joango dira zerbitzu teknikoak, zeinek adierazitako tartetan bide publikoaren mugak zehaztasunez ezarri eta planoan egingo baitute, lehendakariarekin batera. Ondoren, akta egingo dute, Ondasunen Arautegiak 64. artikuluan adierazitako erreferentzia guztiak jasoko dituen, eta bildutako guztiek sinatuko dute.

Gero, Kontzejuaren bilkuran mugaketa ebatzeko erabakia onetsiko da, zeina betearazlea izango baita, eta haren aurka egin ahala izango da administrazioarekiko auzien bidean.

Mugaketa onartzeko erabakia irmo egiten denean, mugarritze lanak hasiko dira, interesdunak tartean direla.

Seigarrena. Erabaki honen aurka ezin izango da errekurtsorik jarri, izapide hutsa baino ez delako; edonola ere, egokitzat jotzen diren ekintzak gauzatu ahal izango dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Olabezar, 2021eko otsailaren 19a

Lehendakaria

EUSEBIO DANIEL MEABE LILI